

# ARRASATEKO “ESKOLA”:

## IKASTETXEA BAINO ZERBAIT GEHIAGO

Joxerra Aizpurua Sarasola

*Arrasateko iharduera industrialara eta kulturala ez da hutsetik abiatu. “Jose M<sup>a</sup> Arizmendiarrrieta Eskola Politeknikoa” bisitatu ondoren, Arrasaten dagoen martxaren sustraia aurkitu genuela esan dezakegu. Gure lankide den Joseba*



*Etxeberriak zuzendu zuen gure bisitaldia, Eskolako pertsonak zein txokoak aurkeztuz. Eskolaren historia, filosofia eta ekintzei buruz hitz egiteko Joan Leibar eta Milagros Arregi izan genituen ondoan.*

## ATZERA BEGIRA

Jose Maria Arizmendiarieta erbestetik 1941. urtean itzuli zen Arrasatera. Bertako gazteriari irtenbide bat eman nahian, Eskola Politeknikoa sortu zuen 1943.eko urriaren 10ean. Hasieran 20 mutil besterik ez ziren eta "Padres de Acción Católica" erakundearen babesean zeuden. Erakunde hau Elizaren babesean zegoenez, lotura batzuk sortzen ziren. Beraz, erakunde independente bat sortu beharra zegoen. Horregatik, 1948. urtean "Liga de educación y cultura" sortu zen. Erakunde hau gero 1980. urtean "Jose Maria Arizmendiarieta" ESKOLA POLITEKNIKOA bihurtu zen. Eskolaren lehen egoitza Biteri eskoletan kokatu zen eta 1964. urtean gaur egun dagoen lekuan, hots, Iturripen. Eskolan sartzeko eskaerak Euskadi osotik egiten direnez, baldintza



Jose Mª Arimendiarieta, Eskolaren sortzailea

batzuk jarri behar izan dira. Horregatik, gazteenek beren herrietako ikastetxetan ikasi behar dute. Irakaskuntza ertainetako

ikasketak Arrasatekoentzat eta bailarakoentzat irekita daude eta injinerutza-mailakoak Euskadi osoko ikasleentzat.



Puntzonatzeko makina hau Eskolan egin da erabat

## GAUR EGUN

Denbora igaro ahala Eskolako iharduera aldatuz joan da. Une honetan hauexek dira dauden iharduera desberdinak:

### Legez arauturiko ikasketak

#### a) Batxilergo Orokorra

14-16 urte bitarteko neska-mutilak onartzen dira, hauek Arrasate edo Aramaiokoak izan behar dutelarik. Ikasketa hauek ez dute luzapen handirik izango eskolan, zeren eta maila handiagoko beste ikasketak bultzatu nahi bait dira.

#### b) Formazio Teknikoa

16-19 urte bitarteko neska-mutilentzat planteatzen dira ikasketa hauek. Teknikaren alor desberdinetan, hots, Zenbakizko Kontrol, Informatika, Robotika, Automatika eta Elektronikaren oinarriko ezagumenduak eskuratzea da helburua.

#### c) Goi-mailako Batxilergo Tekniko Industriala

16-18 urte bitarteko neska-mutilentzat dira ikasketa hauek. Zientzi arloko ikasketak egiteko prestatzen dira ikasleak.

#### d) Injinerutza Teknikoa

Gaur egun hauek dira lantzen diren alor nagusiak:

- \* Diseinu eta fabrikazioa

- \* Produksioa
- \* Informatika teknika
- \* Industri elektronikoa eta prozesu-kontrola
- \* Mikroelektronika

	Ikastaroak	Orduak	Ikasleak
ESKOLA POLITEKNIKOA			
* Eskatutako ikastaroak	34	3200	600
* Ikastaro irekiak	36	1500	540
ETEO			
* Eskatutako ikastaroak	48	1300	800
* Ikastaro irekiak	22	460	350
	140	6460	2290

### Heziketa osagarriak

Formazioa ez da inoiz bukatzen. Ikasleek ikasketak amaitzen dituztenean, teknologien berrikuntzaren abiada dela ea, birziklapenak behar izaten dituzte. Ildo honetan ondoko erakundeak sortu izan dira:

#### a) Iraunkor

Eskolak ETEOekin (Oñatiko enpresa-ikasketen eskolarekin) batera antolatu du zentru hau. Enpresek dituzten birziklapen-beharreri erantzuteko, ikastaro-mota guztiak integralki, zuzenean edo azpikontratazioz eskaintzen dira.

Urtero, dauden ikastaroei buruzko katalogo zabala argitaratzen da. Lan-arloak honako hauek dira:

- \* Teknologia berriak: Mekanika, Informatika eta Elektronika
- \* Produksio-injinerutza
- \* Industri diseinua
- \* Administrazioa eta finantzak
- \* Enpresen gestioa
- \* Marketing-a

*Iraunkoren* aurtengo iharduera goiko koadroan azaltzen da.

#### b) Saiolan

Zentru honen helburua hau da:

“Produktu baten inguruan alderdi tekniko eta enpresarialak aztertzea, azkenean enpresa-iharduera bihur dadin”

Batzuetan, enpresa-iharduera berriaren garapenak enpresa berriaren sorrera bultzatzen du, baina beste batzuetan, jadanik existitzen diren enpresetan iharduera berriaren hasten dira.

Bide hau ikasketak bukatu dituztenentzat planteatzen da eta hiru fase ditu. Lehenengoa enpresa-formazioari buruzkoa da eta 4 hilabetez irauten du. Bigarren, sustapen-proiektua lantzen da eta 8 hilabetez irauten du. Azkenik hirugarrenean enpresaren erakuntza lantzen da eta gutxienez 4 hilabetez irauten du.

Une honetan 20 bekadun daude eta laneko arlo nagusienak hauexek dira:

- \* Zenbait produkzio-prozesuren malgutzea
- \* Fabrikazio-teknologia berriak
- \* Elikagaien zientzia eta teknologia
- \* Bioteknologia
- \* Material berriak
- \* Zerbitzuak

#### c) Goier

Gestio-zentru honen helburua hau da: “Injinerutza Teknikoa ikasi dutenen artean maila onena

**Lanerako gelak ongi ekipaturik daude**



## Ikasleek teknologia ikasi eta ikusi egiten dute

eman dutenak erbesteko unibertsitateetan epe batez aritzea, ikasitakoa gero beren enpreetan aplikatu dezaten”

Frantzia, Italia, Suitza, Alemania, Kanada, Danimarka eta Erresuma Batuko unibertsitateekin mantentzen dira erlazioak.

Halaber, EEEk antolatutako programa desberdinetan parte hartzen da, hala nola, ERASMUS eta COMETT programetan.

Azken ikasturtean guztira 39 ikasle parte hartu zuten programa desberdinetan. Aldi berean zenbait ikasle atzeritarrek Arrasaterantz jo du, truke gisa, programa europarren barruan.


### GESTIOA

Arestian esan bezala, ESKOLA Kooperatiba da. Organo erabakitzaile gorenak Biltzarre Nagusia da eta ondoko hiru estamentuek parte hartzen dute:

- 1) Lan-bazkidek, Kooperatiban lan egin edo irakasten dutelarik.
- 2) Bazkide laguntzaileek (batez ere enpresak dira).
- 3) Ikasleek, 16 urtetik gorakoak direnean eta 16 urte baino gutxiago dituztenean beren gurasoek.

Hiru estamentu hauek partaidetza berdina dute Biltzarre Orokorrean, hau da, bakoitzak 87 kide. Biltzarre Orokorretik Kontseilu Zuzentzailea aukeratzen da. Guztira 12 kide osatzen dute Kontseilua eta 12 kide hauek, aipaturiko hiru estamentuetatik launa aukeratzeko osatzen da.

Atal ekonomikoari begiratuz, sostengu-aurrekontua 845 milioikoa da eta inbertsio zein amortiza-



ziorako aurrekontua 151 milioikoa da. Legez arauturiko irakaskuntzen sostengu-aurrekontuak 1989-1990 ikasturterako ondoko proportzioan estaltzen dira:

* Diru-laguntza publikoa	%44
* Ikaslegoa	%32
* Baliabide propioak	%24

“Baliabide propioak” izeneko atalean Enpresa Laguntzaileetatik etortzen diren diru-laguntzak kontutan hartzen dira. Enpresa hauek diru-laguntzari esker Eskolako instalazioak ekipamenduz hornitu dira.

Administrazio Publikotik etortzen diren diru-laguntzak, desberdinak dira irakaskuntzaren maila bakoitzerako. Lehenengo mailatan %80 eta %90 bitarteko diru-laguntzak lortzen badira ere, injinerutza teknikoan diru-laguntza %15ekoa da.

GOIER, IRAUNKOR eta SAIOLANen kasuetan, dirua Eusko Jaurlaritzako Lan Saitetik, Gipuzkoa eta Bizkaiako Foru-Aldundietatik eta Enpresa Laguntzaileetatik etortzen da.

Eskolako partaideekin izandako elkarriketan lanpostuaren arazoa ere planteatu zen. Une honetan, injinerutza teknikoak ikasten duen edonork lana aurkitzen du. Maestria eta lanbide-heziketakoei, gehi-

xeago kostatzen bazaie ere, lana aurkitzen dute.

Eskolako instalazioak bisitatuz amaitu genuen Arrasaten igarotako eguna. Lantegiak, laborategiak etab. ikusita ez zirudien ikastetxean ginenik; lantegi desberdinetan baizik. Lantegi mekanikoan zeuden tornuen artean, Eskolan diseinatutako puntzonatzeko makina ikusi genuen. Makina hau oso osorik Eskolako ikasleek egindakoa da. Adibide honen bidez, ikasleek egindako proiektu guztiak gauzatu egiten direla frogatu zituzten.

Azken puntako teknologiek ere beren lekua dute Eskolan. Beirazuntzeko produktuak jorratzeko gela osatzen ari dira, baina zenbait produktu, moldeak esate baterako, burutzen dira jadanik.

Elektronika-gela, CAD-gela, informatika-gela, etab. etan, ekipamendu modernoak ikusi genuen eta bertan lanean ari zirenak lantalde txikitzen eta proiektu konkretuak lantzen ari ziren.

Ikasketen erreforma datorkigun une honetan, Arrasateko Eskolak aspaldi ekin zion erreformari irakaskuntza eta laneko mundua elkartuz.

Artikulu honen hasieran esan bezala, ez al zaizu iruditzen, irakurle, Eskolak bere inguruan eragin handia duela.